

Bingen Aizkibel

URRETXINDDORRA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Ipuin Aberkoyak*, Aizkibel'dar Bingen.
Grijelmo-Alargun-Semien Irrarkola, 1917.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00527.htm>

AIZKIBEL'DAR BINGEN

URRETXINDDORRA

1918

Grijelmo-Alargun-Semien irarkolea,
Arbolantxa-1
ABANDO-n

EUZKELTZALE-BAZKUNA-ri

USO ZURIJA

Uso zurija,
gentzeaz ua
ire kayola
lagatzen;
ua basora
poz andijenaz
azkatasuna
abesten.
Oyan-artian
kumak yagozak
ire etortia
itxoten.
Amatxu-barik
ikusi yuen
euron abija
goiz baten;
ordutik ona
yagozak ittun
abar-artian
txio-itten.

Egaz-egitten
euren ondora
ua, usotxu,
lasterren!

SABIN-EN ABINTZA

Negar samin dagixu, ene Euzkadi mattia,
zeure aurpegi illunak darakus alegia,
ta zure bijotz onoi birrindduta dago;
zer-eta negar ori, neu-aberri gaxua,
eta zegattik illun dozu zure gogua,
ta intziriz eta alaka, zer dala-ta zago?

Sorkaldetik euzkija agiri oi-danian
euzko-lurra urreztetan beren argi-izpi-pian,
asten zara, amatxuboi, bijotzez nekausten;
ta euzkijak barriro bere mosu gorrija
eskutetan daunian, ama tamalgarrija,
zure nekauste ori ezta, ez, amaitzen.

Nire Euzkadi gaxua, nire ama mattia,
amarik ederrena ta atsekabez betia:
gauza gustijak baño nik mattiago zaut;
zure naibage oro neuriak ba-litxaz lez,
nik jasan gura neukez, al ba-neu, zure ordez,
ta zure aldez, ama, nik il be gura daut!

Baña bai-dakit ondo negarron zegattija,
zer dala-ta illun dagon amaren aurpegija:
zu len azke ixan zintzan eta oin otseña!
Mendiko txorijak lez zeban azkatasuna,
batta zure semien egizko mattasuna;
baña aspaldijan ori betiko galdu zan.

Lenago buru-jabe, buru-bakarra zintzan,
eta zure lagijai emon zeutsen inddarra,
Batzar Nagusijetan, Areitz deuna-pian;
orduban euzkotarrak ziran abertzaliak,
ta bai-zindduben zintzo matte zure semiak
aberrijaren aldez emonik odola.

Gero... gustiz ederra ta ona zaralako
areyuak sartuta, zure erijotzerako
mendi-ibarrak, etxiak, birauz bete dira;
Euzkera zar ederra, askitzak, ekandubak,
zure gogo zinddua ta, azkenez, semetxubak,
zure seme mattiak!... gustija galdu da.

Betiko?... Amatxuboi: gustiz gaxua zara,
zure semiok bere gaizto-gaiztuak gara,
ta zure zoritzarra andija da, ziñez;
iñoi ez-iñoi galdu, baña, itxarokintza,
zure seme batek, ba, entzun dau zure deya
ta bera gertu dago ilteko zu-aldez.

Ni naz: ementxe nozu, euzkotarren semia;
bijotz osoz matte dot euzko-abenda zarra,
txorijak axia lez ta arraintxubak ura;
zure sorosi-deyak nigana eldu dira;
neu-alegin gustijak zuretzat gitxi dira;
ama: zu illezkero nik eztot bixi gura!

Negarrez ikusten zaut, ene Euzkadi mattia,
zure aurpegi illunak darakus alegia,
batta gexorik dago amaren bijotza;
zure seme gustijak zugaz aiztuta dagoz,
Euzkadi-ko ortze ederra gautegun dago lañoz...
Ezta ardura, amatxuboi: ona neu-abintza!

Mendi ta ibarrez-ziar, basetxerik-basetxe
jungo naz, ta beldubak Kisto-ikaskintza letxe,
Aberri-maiasuna erakutsiko dot;
ta zure itxarkundia laster ikustiarren
ogasun ta bixitza damokedaz pozarren.
Gauza gustijak baño nik mattiago zaut!

AMA-SEMIAK

Ene semetxu
matte-mattia,
neu-bijotzaren
kutuna;
ortze-zatija,
lirain politta,
ire amaren
zoruna;
ene semetxu,
ene bijotza,
ene begijen
argija.

Zegattik negar
dagik, enetxu?
Zegattik eztok
lo gura?
Iñoren bilddur,
kutunxuboi, az
ire amaren
alzuau?

Gixon gaiztuak
zemau ete-au?
Jo ala minddu
ein dauska?
Ez-egin negar,
matte-mattioi,
ez-ixan bilddur,
politta.
Nire altuan
egonezkero
etxauk iñoren
bilddurra.
Gauza gustijak
baño mattago
au ben-benetan
ameak.
Ta bere umetxu
iñok jo baño,
galdu lenago
bixitza!

AZKATASUNA

Zugatz-abar-artian
txio-txioka
eta ijuti dabillan
urretxindorra,
pozik bai-dago,
ta pozik egon daike
azke dalako.

Arkaitz-oyarrez-ziar
amatxu-billa
dabillan oreintxuba,
beti ijutika,
pozik bai-dago,
ta pozik egon daike
azke dalako.

Iren errijon bertan,
miñez alaka
eta intziriz aguan
euzko gaxua:
pozik ezago,
ta ezin egon, azke
ezazalako.

ABESTIjak

Azke beti bixitzeko
asko dira jayuak;
ori dala-ta bestiak
sarturazo espetxian.

Opilla ostu dabela,
epaipe dagozanak!
Errija ostu dabenak,
ortik dabiltz bakian!

OLESKARIJA

*Enbeita'tar Kepa
oleskari ospetsubari*

Aberrijaren oleskaria
ni naz ta nire bijotzan
ene Aberri gaxuantzako
mattasun-garra izpi da;
enaz jakittun, ez aberatza,
ezer eztaukat ludijan
gauza bat baño: neu-aberrija,
Euzkadi gaxo-gaxua.

Nire asaben etxe zurija
aspaldijon itxi neban
euzko-anayai irakasteko
irakaskintza aberkoya;
ordutik ona mendirik-mendi,
uririk-uri ibilten naz,
edonun eta edonoz beti
abes-eiten lotuteka.

Mendi-gallurren ganetaraño
sarri-sarritan igon naz
ta Jaungo-gana eskar otoya
bijotz sutsutik urten da.
Geure erri onen polit ederra!
Bere basuen orleya!
Euzkadi au dan mattagarrija!
oi, baña, bera dan gaxua!

Mendi-basetxe baztertubetan
sarri-sarrittan sartu naz,
euzko-artua jaten nebala
otza kentzen sukaldian;
ta agura-atsuak euren illobai
antziñeko aseliak
edes-egitten eutsiezala
ni adi-adi nenguan.

Agura zar-zar bat-edo-batek,
ule-luze ta zurija,
Aberrijaren edesti ittuna
edestu ein daust zotinka,
bere semiak aiztuta dagon
amearen edestija,
nire bijotza samin-samiñez
entzutiaz bete dauna.

Ta gurasuen etxe zurija
berialaxe itxi neban,
ta uririk-uri, mendirik-mendi,
atseden-bage ibilten naz,
edesti ori an, or ta emen
irakasten abestijaz.
Entzun, ba, orok neu-abestija!
Ni naz euzko-oleskarija!

DEUNA ALA GUDARI?

Euzki odoltsuba mendijen ostian
dil, eta illazkija dago otoi-artian;
 illazki zurbilla,
 argijaren billa
 gabaren aurreko
agiri oi-dana, euzkija il daneko.

Bere jauregijan dago zaurittuba.
Sartzen da leyotik azken-izpitxuba
 gelea argittuten.
Berak irakurten
 deunen edestija
dago, atsegintsu yakon idatzia.

Noxian-bein adi, begijak itxitta,
oldoztun dirudi. Orman eskegitta
 ezpata luzia
 dago, irabazlia
 aizkidien aldez,
arerijo, batta anayaren kaltez.

Zetaz oldozten da euzko-gudarija?
Bein eta birritan deunen edestija
 bai-dau irakurri,
 ta eskar-itturri
 ixan da beretzat;
etsi dau zintzoro eredu edertzat.

Ta bere bijotzan gudaka gogorra!
Deunaen bixitza bai-da mattekorra,
 donoki-bidia!
 Ezpata luzia
 aintzaren geznari
bai-da!... Zein autetsi? Deuna ala gudari?

Euzki odoltsuba mendijen ostian
il da, ta illazkija dago ixar-artian.

Zaldun euzkotarrak
deun-edesti zarra
itxi ta bai-daki
ointxe zer ein: Deuna ixango da Iñaki!

ESPEKUA

Axe-barik, eguzki-bakua,
dagokijon miñez alaka,
bere oñak burdin-oñestunaz,
espetxe-illunan;

aberrija gaxua dala-ta
aurpegijan negarren atza,
gotillun ta adikatu bai-dago
abertzalia.

Bijotz-larri, aurpegija-ittun,
irudija bai-da ixukorra;
bere izteak dar-dar eiten dabe
makal-makalaz.

Narru-azur-utz da gixaxua,
aragija intziriz gal-eban,
gixon-antza baño berak eztau,
inddarrik ezta.

Lurran dago; oñestun-gañian
bere gorputz argala datza,
ta begijak negarrak itxitta;
lo dagi-ala?

Ez lorik; aberrijaz oldozten
dago sutsu gixon zintzua,
ain matte-matte daun aberrijaz,
aberri ittunaz!

Azkatasun Euzkadi-rentzako,
azkatasun euzkotarentzat
gura eban euzkotar gaxua...
espetxian da!

TXADON-JUALIA

—Uriko txadon-joliak,
joten daun alegia!
Zer jazo da, ba, uri ontan?
—Txadontzain donia il da.
—Gixaxua! Ta bera ildda,
nok joten dau jolia?
—Iñok bez, joliak berak.
—Zer gero?

 —Ulerkaitz ezta:
txadontzañaren gorputza
dago, ziñez, obijan,
baña torrian betiko
dago bere gogua.

—Uriko txadon-joliak,
joten daun poz-alaya!
Zer jazo da, ba, uri ontan?
—Gixon gaiztua il dala.
—Gixaxo! ¿Ta nok joten dau?
—Nok? Jualiak berak.
—Txadontzañaren goguak

joten dau, ala?

—Ezta.

—Nok, ba?

—Goteungia bera
dago joten, urrian.

—Zer gero?

—Pozez beterik
gixon gaiztua il da-ta,
ta geztoki bilddurkorran
beste gogo bat daula.

—Baña adittu. Bai-da ixilddu
jolia. Zer ete-da?

Barriro joten dau alai!

Barriro ittun-ittunaz!

Zoratu da jualia?

— Ezta.

—Zer, ba?

—Ete-da
txadontzañak goteungia
torretik jaurti daula?
Entzuzu: *talan, tolon!*
entzuzu: *tolon, talan!*

EUZKO-DANTZAKETA

Udabarri-arrats baten, eguzkija iltten zanian,
oskorri-margodureaz mendijk apainduten,
urrun-urrun entzun neban, muna jagira igotian,
euzko-txistuba zelayan, atseden-baga joten.

Danbolin-otsaz axiak ekarran alattasuna,
dantzaketak gogo orotan erazotako poza;
noxian-bein niganaño urrutiko poztasuna,
santzo ta abestijen anots alaya elduten zan.

Eta urrun, zelai-erdijan, itturitxuba-onduan,
arratsaldeko euzkijakurreztetan ebanan,
gastiak dantza-egijen alai ta bizkor moltsuan,
dantza zar, bizkor, ederra, gudari-dantzaketa.

BIDAZTIJA

Bidaztija

Oben-nekia dala-ta,
batetik bestetara
ibilten nazan bidazti
obendi gaxua naz.

Luiki Donetik
nator ointxe,
ortotsik eta
billotsik be;
ilgo naz laster
gose-otzez.

Gose-ixaten nazanetan
joten dot atietan,
ta etxataz errukitzen
bein baño geyagotan.

Nik eztot uste
eingo dozunik
bestiak egin
dabena,
ta zure etxeko
bazterren baten

emongostazu
lekuba;
eta nik barriz
egingo dautzut
bijotzetiko
eskarra.

Etxaguna

Ua, ua, bidaztijoi,
ua beste lekura,
eutzaz ardura-ixateko
astirik etxoguk-ta.

Bidaztija

Gaba da ixukorra;
ibilli ezin;
axe otz gogorra.
Ilgo naz battin!

Etxaguna

Ta guri zer, eu il-arren?
Ez-etorri gugana
eu azala-ta asaldetan
etxekuen alaya.

Bidaztija

Batzarretik
naldenke;
bazter baten
nagoke.

Ardurez ixan;
gurazkero
txarri-kortara
bai-naz jungo.

Etxaguna

Ez kortan, ez iñun bez
ezaz ona sartuko.
Ua laster, bidaztijoi,
astija ez-galtzeko.

Bidaztija

Agur, ba; emendik nua
errukijaren billa.
Urrian, ai, bera idoro
baño lenago ilgo naz!
Au-ta-be,
bidartijaren

onespena
darkezu.
Jaungua-k
Goiko eskarra,
betikorra,
bemotzu.
Bidazti
gosetubaren
gaiztetsa, ba
entzuzu:

Ogija ta alaya ugari
eukiko al-dozubez!
Agur; bidazti gaxuau
dua etxerik-etxe!

TXORIJAREN ABESTIJA

Kayola-barru
txio-txioka,
dagon txoritxu
politta
ixilli-barik,
dirudijanez,
bai-dago pozik
zorijaz.

Ez uste ori:
bere eresija
abesti ittuna
bai-da-ta.

Askok kayolan
txorija ikusten
gau eta egun
txioka,
pozik dagola
uste dabe, ta
ittun-ittunaz
dago, ba.

Eztau abesten,
ez, negar-dagi,
espekuaren
negarra!

Lenago azke
zan axietan
ta orain dago
kayolan;
kayola argija,
eta apainduba,
espetxe baltza
beretzat!

GORAÑO

—Edurrak estal yozan
amillen artetik,
nora ua, gastioi?
nora ua ain arin?
Edur-artian laster
jausiko az, noski,
ta gustijak itxitta
bai-az ilgo, battin.

Atzera-eik, gastioi,
etxera atzera-eik,
len-bai-len gose-otzez
ezpa-dok gura il.

—Ez; aurrrera-yagiket,
enok ardura ni;
nire garaitz-ixarrak
goyan argi-yagik;
mugara eldurarte
iñun lotu ezin.
Bakar nayaguala?
Jungo nok bakarrik.

Etxuat gose, edurra,
ez otza-bilddurrik,
mendi-gallurreraño
elduko ba-nok ni.

—Gorrotoz itxututa
etsayen artetik,
nora ua, abertzale?
nora ua ain arin?
Irañak dozala-ta
jausiko az, noski,
ta gustijak itxitta
lotuko az, battin.
Atzera, ba, jeltzale,
etxera atzera-eik,
len-bai-len atsekabez
ezpa-dok gura il.
—Ez; aurrera-yagiket,
etxaustak arduraik;
aberri-itxarkundia
goyan yakusat nik,
ta gora eldurarte
iñun lotu ezin.

Bakar nayaguala?
Jungo nok bakarrik.
Enok ezetsa, irri ta
etsayen bilddur ni,
ikusiko ba-yuat
azke gure Euzkadi.

MATTIENA

Nik bai-dot mattetxuba.
Bera dan ederra!
Kutun ederragorik
eztago ludijan.
Baña ederra dala
gure mattetxuba,
matterik mattiena,
bera dan gaxua!
Euzkadi dau ixena,
ixen eztitsuba;
euzkotarren aberri
zar-zarra bera da.
Ezta euzkija bera
baxen argitsuba;
eztira euzki-izpijak
beren eregubak
baxen mattagarrijak
leun eta bigunak.
Matte-matte dauzala
seme-alabeak
amatasun andijaz

euren begira da;
baña eurak eztabe
matte-ixaten ama;
barriz, eresten dabe.
Au da zorigatxa!
Nik bai-dot mattetxuba,
bera dan ederra!
Ta ederra ixan-arren,
bera dan gaxua!

JOSU GURUTZALDUBARI

Illundu da euzkija, itxasua asaldatu,
ikara ein dau lurrik, oztija begikatu,
ta tximistargi-ostez, orru-daike ostotsak;
txadon-euna eten da, berbixi dira il asko,
ta ludija oñazez lotu da bixi-bako.

Dana amattuta dago! Il da Goiko jauna!

Ortxe dago: gixonak gurutzian jositta,
Goi eta beko jauna, gaiztuak ezetsitta,
Jaungo-Seme bakarra eta Aloroduna;
ortzia, ixarrak, gauza gustijen Egillia,
Miren Ama Neskutza-n Seme matte-mattia,
Iudira gure aldez ilteko jatsija.

Il da! Ta eralliak eztira gurutz-pian
dagozan gudarijak, ez ilten danartian
berari ixeka eiten dautsaen dollorrak;
Kisto-erijotzaren errudunak gu gara,
guk Bera ipiñi dogu gurutzan orretara;
gure oben gustijkak dira bere erallak.

Garbai-garbai gadixanl Gurutzaren aurrian
ta gure Josu-Kisto il, gurutzaldu-bian
apal belaunbikotu gadixan min-miñez;
ta autortu dagitsogun, oben ein dogunarren,
bere espan deunetatik iñoz entzutiarren:
«Gaur berton donokijan nirekin agoke».

BASETXIA

Nire basetxe zarra,
euzkijaren argija
lengoz ikusi neban
asaben kayola;
nire basetxe matte:
euren azken-egunak
antxe igaro ebezan
guraso mattiak;
nire basetxe polit:
gomutaen txadona,
ta matte dodazanen
zaindoki ta abija;
nire basetxe goren:
bertan amama onak
edestuten euskuzan
asaben askitzak;
nire basetxe jagi:
jaungo-ganantz egitten
mendi tontor-tontorran
jarritta dagona;
nire basetxe apal:

uso zurija legez
ta mattasun-txadona
urrun dirudiña.

Eder, polit, apala...
eztakit zelan esan,
baña nire gogua
pozez betetan da
solotik uriraño
bigurtutenez nazala
ikusten dodanian,
ikuskantz ederra!
Eztakit zelan esan
baña au, ziñez, bai-dakit:
edonoz nagonian
ittun ta alegiaz
basetxia ikustiaz
ittuna ta alegia
laster aiztuten dodaz,
ta alai-poztutenez naz.

Bere orma-barruban
nire begira dagoz,
epebakoa, nik matte

dodazan gustijak,
ta barrura sartuta,
semalabak laztandu
eta nire emaztiak
mosu-etten daust-ta.

Ai, nik galduko ba-neu
iñoz nire kayola!
Nire basetxe zarra
iñoz ezpa-neuka!
Agur, alai ta poza,
agur, nire itxarua
agur, agur betiko
mattetan dodana!
Jaun-goikua-k ezpegi
ori jazoten gura;
niretzat basetxia
nire bixitza da;
bertan bixi-ixan nintzan
ta il ziran gurasuak,
ta bertan daukot beti
bijotz mattekorra.

SABIN-EN DIDARRA

Nire Euzkadi gaxua il-zorijan eguan,
begijak Jaungo-gana otoiz zuzenduta,
negar samin-samiñez buru-jabetasuna,
antziñeko Lagija, eskatzen eutsala.

Bere bularra dauko arantzeak jositta,
bere gorputz lerdena zauri utza einda,
ta semiai begizka, negarrez ta otoiak,
Aberrijak deskatse mattasun-apurra.

Bere semiak, baña, beraganatu-barik,
gor ta bijotz-gogorrak berarentzat ziran,
ta gero ta geyago ezesten eben bera,
ta gustiz aiztu eben aberri gaxua.

Ainbeste ardura-ez, ezets eta gorrotoz
oñazez lurra-jota, zotinka eguan,
ta gustijk aiztuta, gero eta auldubago,
bijotza-otz eguan il-zori-zorijan.

Ilgo da, baña il-aurrez alegiña dagike
ta abots motel-motelaz diraus onetara:
«Oraindiño eztaukot matte naun seme duñik?
Abertzalerik ezta?» Ta inddarge ixiltzen da.

Ta bat-batez edonun, goi-gottik etorritta,
abertzalen didarra zoli entzuten da,
axe gogorrak legez oyu dагin didarau:
«Euzko-azkatzallia, nor ixango da, ba?»

Mendi garai-garaitik urrun dan uriraño
axe biguna legez egazten da anotsa,
ta bat-batez urrundik entzuten da didarau:
«Nerauk azkatu daiket euzko-aberrija».

* * *

Eztakutzube-ala, ikuskantza bai-litzan,
gixon baten irudi zerden argitsuba?
Eztakutzube-ala bera-arpeggi ederra
eta bere bekoki sutsu ta zabala?

Bere begi zolijak tximistak darijoez,
ta arrenka legez dagoz bere espan samurrik;
zutik, iru margodun ikurrin euzkotarra
eskuman daukolarik axian zibuka.

Itz-dagi, bere buru ureztetan dabela
goxeko euzkijaren izpitxu bigunak,
ta goyan ikerriña darabillanartian
itz-dagi, ta diñona entzugarrija da.

* * *

«Nerauk azkatu daiket euzkotarren errija.
Astiz bai-neban entzun bere didar deuna.
Ezin bijotza itxi ta seme eskar-gaiztuak
laster erungo dodaz aberri-bidera».

«Itxon, Aberrijori, itxon, iru margodun
ikurrin euzkotara zabaldurartian.
Ezta aurrerantz entzungo nire bijotz samurra
oraintxe mindduten daun atsekabe-deya!»

«Itxon, laster-bai-laster azkatasun-eguna zu, Ama, piztuteko etorriko da, ba, ta egun eder ori argittuko ezpa-da orduban ixango da, ziñez, erijotza».

«Euzkotarrok: amentxe gure ikurrin mattia: *Jaungo ta Lagi-Zarra* da bere ikurritza; berari jarrai ekin. Abertzalesunak bakaulkija ixan begi zuben bijotzetan».

Jaungo ta Lagi-Zarra berresaten anotsak edonun zabaltzen da *Jel-azi* donia, ta baso-txaboletan, jauregijetan legez, gero eta geyago da inddarrez ernetan.

* * *

Baña, nun ete-dago lenagoko didarra beñolan egin eban abertzale ona? Euzko goren-gorena, Irakasle bikaña, euzko-azkatzallia, nun ete-dago, ba?

Abertzale gurena! Sabin gaxo-gaxua!
Ezeban, ez, ikusi berberak sortuba.
Euzkadi itxartuteko bixi-ixan zan bakarrik,
ta donokira gero, au lortuta, jun zan.

Ezta ardura; oraintxe len baño altsubago
Urtzi-ri gure aldez eskatu al-dautsa.
Eskatuko al-dautso Sabin matte-mattiak!
Laster ikusi daigun euzko-itxarkundia!

EDURNE

Edurne mattetxu, Edurne lerdeña,
neskatil-artian azan ederrena,
 Edurne liraña,
 Edurne bikaña,
 nire neskatilla,
nik matte yonadan neskatil zurbilla:

Gaur don jai-eguna; alai don urija;
landan gertu yagon, ba, txistularija;
eurrez gixoztia.
 Bat bez alegia!
 Oro gertu eta
asten don alaitzu euzko-dantzaketa.

Ni gertu nayagon, Edurne, ire billa.
Nun sartu da, baña, nire neskatilla?
 lagunen artian?
 gurasuenian?
 Gaur jaya dalarik
lotu da etxian Edurne bakarrik?

Ez; or ago oldoztun. Zetzaz eta zetan?
Zegattik ezator nirekin dantzetan?

Oro alai-pozik
eta gu bakarrik
emen, aurrez-aurre...

Orok gure lepoz eingo yone barre.

Ezton jaramoten? Nire itz samurra-arren
ezaz alattuten, mattioi, pozarren!

Eztonala gura?
Ezton, ba, ottura?
Edurne lerdena:
bai-yagon, bai, ondo Edurne ire ixena!

ABERRI MATTIA!

Aberri mattia!

Ludiko gauzarik ederrena,
bijotzez matte-dodan lorea,
negarrez nik dakustan gaxua,
alairik geltzen dodan mattia,
nire gogo zindduak joranez
jaretsi gura daun elburuba,
donoki-bidia.

Aberri mattia!

Berau da nire gogo-ametsan
gautegun nik ikusten dodana,
gauzarik samurrena bai-litzan,
bere argi leunaz erakarten
neu-gogo-almenak ta bijotza,
begikatzen eztan ikuskantza.

Ederra beria!

Aberri mattia!

Aran, ibar, zelai orlegijak,
menditzar jagijak, munotxubak,
itxasua, itxasertzeako bitsa,
edo ortzeko illazkija ta ixarrak,
ortze, ludi, itxasua ta oroi
begizka nagolarik, edonun
da bere irudija
Aberri mattia!

Eta axien bunbada gogorrak,
zugatzak makurtzen dabezala,
ta ortzian ostots ixukorrak,
ta tximista-argijak, goi-ekatxak,
otz-edurrak, txingorrak ta euzkijak,
gustijak gogoratuten dabe
nik aiztu eziña
Aberri mattia!

Zegattik orrenbeste mattetu?
Zer dala-ta gogua zoratu?
Ire neke-miñak dirala-ta?
Ire edesti gustiz aintzatsuba?
Etxakiñat; baña au-ta-be asko
matte-aut. Ire ixena yakiñat.
Ixen pozkarrija!
Aberri mattia!

Negar dagin-ala?... Nik azkatu!
Nai yonat aberrija laztandu!
nai yonat eu-oyubok ixilddu!
nai yonat eu-negarroi legortu!
nik gura aut, ama, pozik ikusi
ta zoruntsu, negarrez egundo!

Beti alegia!
Aberri mattia!

Gaxuoi! Auxe nire amesa
ta negar samin onen zijua.
Nire Euzkadi nekiaren nekez
gotillun ta adikatuta dago,
ta nai dot nire inddar gustijetaz
bijotzez ta gogoz, bera aintzaldu.

Bai-da il-aginian
Aberri matia!

Aberrijaz aiztuta zagozan
euzkotarak, bijotz-gogordunak:
ez arritu, negarrez ta alaka
gautegun ba-naz ni, gixaxua!
ikuskantz eder baxen ittuna
edonun-edonoz dakust-eta.

Zorigatxa iria!
Aberri matia!

URRRUNDIK

Urrundik ikusten dot
uritxu mattia
aran bare ixiltsuban,
mendijen artian.

Bera mattagarrija!
Bera, bai, politta!;
egaz jongo nintzake
ni pozik bertara.

Baña nire gura-arren,
ezin juan ara,
ezin, ta zabal dago
arako bidia!

Nagonetik urira
ordu bat bere ezta,
ta beti lez ariñak
dira nire izteak.

Bera ta neu-artian
esija da, baña,
ni lako ororentzako
igaro-eziña.

Nire urija Parantze-n
ei-dago jarritta,
ta ni nagon tokijau
España-ko ei-da.

Bijak euzkeldun dira
ta abendakidiak,
ta au-ta-be... olan dira
ludiko gauzeak!

Guda odolgiruak
Pantze-n asi zala
eruan nai nindduben
ni guda-tokira.

Iñok Euzkadi-aurka
iñarduban, baña?
Ez. Ta Euzkadi azke,
zetako gudea?

Eta gudara-barik
ona eldu nintzan,
gabez, ixil eta arin,
mugea igarota.

* * *

Ordutik egunoro
emendik urija
ikusten egoten naz
gogo ittun-ittunaz.

Asabaen abija,
semien kayola:
ni naz txori gaxua,
andik igesija.

Noz abi orretara
bigurtuko naz, ba?
noz sartuko ete-naz
nire etxe zurira?

* * *

Urrundik ikusten aut,
uritxu mattia;
azan mattagarrija,
alai ta politta!

Oi! txorija ba-nintzok
juteko eugana,
mugaldia betiko
atzian itxitta!

ABERRI-DEYA

Euzkadi gora! Aberrijaz
aiztuta zagozanak:
ez-ete-dozube entzuten
menditzarren artian,
ibar ta zelayez-ziar
edatuten dan deya?
Ez entzun-gurarik, ala?
Orren bijotz-gogorrak
ete-zarie Euzkadi-ren
sorosi-deyarentzat?
Ikusi ittun, eratsitta,
Ikusi ezetsitta,
ikusi negarrez beti,
ikusi, bai, alaka,
Ikusi bere begijak
Jaungo-ri zuzenduta,
ta bere beso makalak
gora, semien billa,
beragaz aiztu dagozan
bere seme eskargiak!
Eztakutzube gaxua,

eztakutzube deika,
or-emetik billatuten
semien mattasuna?
«Ene semiak: zegattik
nigandik aldenduta?
Zuben ama nazala-ta
lotsa zarie-ala?
Beste errijak baxen duña...
gustirik duñena naz!
Enaz Arrigorriaga,
Gordexola, Mungia-n
euzko zintzo ta senduak
izkilluz aldeztuba?
Enaz-ala, buru-jabe
iñoz ixan nintzana,
neure aldez il zirala
eurrez nire semiak?
Enaz-ala gudarijen
aberri aintzatsuba,
lurralde ez-ezaunen billa
ixontzi txikijetan
ludijari biraketan
ebiltzanen errija?
Enaz deun askoren ama...,

zeuron jayoterria?
Olan ba-da... Bakit, baña:
Enabe matte euzkuak!
Eztira asaba zindduen
seme zintzo zindduak.
Amea ezesten dabe,
ta beragaz aitztuta,
arrotzen ikurrin-atzez
juten dira jorana.
Arren, nire seme oyek:
entzun nire didarra;
niganontz etorri laster
arrozkeria itxitta!
Enaz nire buru-jabe,
zorigaitzun utza naz.
Berotu nire bijotzau
zuben bijotzen subazi!
Abestu, gora Euzkadi!
Abestu Aberrija!

* * *

Zuben ama gaxuaren
sorosi-dei etzija

urgazia eskatuten
eztozube entzun ala?
Eztozube entzun gura be?
Orren bijotz-gogorrak
Euzkadi-ri entzuteko
ixango zarie, ba?
Azkatasun-irrintzija,
entzun ez euzko-lurran?

* * *

Gure asaba zindduak,
oi! jagiko ba-litzaz
esateko: Bigurroyek:
nun dago euzko-odola?

SABIN-EN ILLOBIJAN

Ementxe datza beti-betiko
euzkotar baten gorputza;
bere gogua donokiraño
aspaldi jun zan egazka.

Etzan gudari, ez aberatza,
etzan jakittun, ez deuna,
bakar-bakarrik abertzalia,
baña abertzale zintzua.

Euzkotar ori: ikasi nai bok
mattasunaren inddarra,
erdu illobira eta adiraldu
euzkotar onen bixitza;
ta bera lako abertzalia
egiñezker buruba,
bera lakua ta aberatz, deuna
ta jakintsuba ixango az.

UDABARRI

Negu gogorra, otz-edurtsuba;
bixitz-bagerik da lurra;
oro ittun dago, sukaldietan
sendijak dagoz batzauta.

Itxaron, baña: negu-ostian
elduko da udabarrija:
orduban lurra berbixiko da;
gustija ixango da alaya.

Negu gogorra, otz-edurtsuba
ixan dau geu-aberrijak;
ittun eguan; arrotz-artian
bere semiak egozan.

Itxaron, baña: negu-ostian
elduko da udabarrija;
ordun Euzkadi berbixiko da
ta ixango da zoruntsuba.

OBENAREN NEKIA

Ogasun-billa aberrija
itxi dokan euzkotar:
urrun ire gurarija
lortu-barik, mingarrija
ixango dok bixitza.

Azan zoro ta erua
ulertuko dokanan,
jayoterriko itxasua,
lurra ta aberri gaxua
gomutalduko dozak.

Ire guraso mattiak,
ogijarren itxitta,
gomutan iraungo yazak
ta mingotz eure begijok
malkoz beteko dozak.

Gertuko az bigurtzeko
lasterren aberrira,
len lez zoruntsu ixateko.
Oi, gurako dokaneko
ixango dok eziña!

NI... NON NI

Kopeta-urretsu, neska pollita,
gorputz-lerdena, mattekorra:
bijotz-bijotzan sortubak, entzun
mattale onen abestijk.

Matte-egarrijaz ire mosuba
nik geldu gura-yonadanan,
buruba aldera, begijak itxi,
ta ezin lortu gurarija.

Nire bilddurra ete-az, neska?
Ezton neuria eu-bijotza?
Ala nekian nekez jaritxi
mattasun ori biar-yonat?

Aitzu don-ala itturritxuban
sarrittan bijok alkarregaz
uri-zelayan dantzatostian
pozez barreka gengozala?

Aiztu don-ala? Sarri-sarrittan
agirtzen intzan solo-onduan,
ikuskantz eder zoragarrija!
itxirazoten niri lana.

Aiztu don-ala? Landa orleyan
gure mattasun on sutsuba
bijok bein esan bai-gayeutsonan
alkarri, lotsaz gorittuta.

Eta egarriz errekatxura
egin gayonan edatera,
baña goguan matte-egarrija
bai-zonan gettu ur aregaz.

Ezaz, biarba, i gomutetan
nik emon neusnan loratxubaz,
ire bularran, bijotz-onduan,
jarri ebanaz, mun-egindda?

Ta ni orduban zorabijauta
lotu nintzonan; eguzkija
mendi-ostian ilten bai-zonan
etxera eldu giñanian.

Ta eldu yatan guda-mutilla
juteko aldi bilddurkorra;
euzko ixan-arren, neskatilla-amak
itxi, ta laster, atzerrira!

Oraintxe pozik nire mattiak
bigurtutenean non ikertzera;
ama mattia idoro yonat...
ez, baña, neska polittena.

Zegattik ori, ene mattetxu?
Guda-mutillaz aitzu az, ba?
Aldijaz-ala enon ezautzen?
Lengua non, ba; bai, berbera!

TXORITXUBA

- Txoritxuboi: norantz ua egaz-eiten axian?
Abitxuba lagatzeko edurra dok basuan;
atzera, txori gaxuoi, ago geldi abijan.
- Txoritxubau mattezkerro ez galazo bidia;
antxe, urrun, itxi yuat burdiñezko kayola,
eta idoro gura-yuat nire abi mattia.
- Nora ua, txoritxuboi, nora ua bakarrik?
ire eguak berotzeko eztago euzki-izpirik;
abitxuba idoro baño len lotuko az illik.
- Enok bilddur, ez ardura, abija idorozkerro;
an yagozak umetxubak nire begira gero;
kayolan espetxalduta bai-nok egon luzero.
- Oyanetan eskutauta bai-yagok eiztarija;
bere ondoz juatian eingo dauska zaurija,
eta abija eztok iñoz ikusiko, txorija.

—Jaubia lotan eguan ta itxi yuat kayola;
bai-yakijat orain bera nire billa dagola,
baña nik azke betiko ixan gura yuat, ba.

—Ondo yagok, txoritzuboi, ondo yagok, zin-zíñez;
menbetasunetik iges egaz-eiten dok axezi,
il-zorijan egon-arren goi-azkatasun-atzez.

—Bai-yakijat mendijetan oin dokala edurra;
bai-yakijat eitzarija begira yaguala;
bai-yakijat ni-zorija dokan ittun gogorra.

—Au-ta-be aurrera ua. —Aurrera, bai, nayuak;
kayola lagatziarren iltia dok gozua.
Egaz-etten, aizkidioi, itxi txori gaxua.

ATTITTA-ILLOBEAK

—Attitta: zegattik ittun?

Zer daukozu, attitta,
orren illun, orren larri
egoteko? Zer da, ba?
Zer dala-ta negar ori?
Gexorik zago-ala?
Nai ba-dozu etorteko
amari esangotsat.

—Ez amari dettu, illoba,
ixango dok alperra;
gexo-barik eta senddo
yagok nire gorputza;
bakarrik min-etten yostek
zartzaroko oikerijak.
Gorputza seudo, bai, baña
illik yuat bijotza.

—Olan ba-da, zer daukozu?
Naibageren bat-ala?
gure basetxia kentzen
iñor eldu ete-da?
aurten uztea da urri?

eztago ogirik?

—Ezta;

euzkotar ororen miña
dok nik yaukeadana,
aberrijaren oñaza...

—Nik eztulert, attitta.

—Gauzaok ulertuteko
ezaz adiñekua;
laster ekin-ekittiaz
bai-dok jakingo, baña.
Adi: beñolan euzkuak
oro azke zuazan,
uretan arraña legez,
eta txorija axian,
piztijak oyan-artian
ta basuan oreña,
odeyetan arranua
eta leyetan artza;
eurak euren mendijetan
etten yuen txadona,
ta bertatik Urtzi-gana
garbi yoyan otoya;
eurak mendijen artian
iragi basetxiak,

euren basetxe zurijak,
azkatasun-txadonak;
eurak, be, euren soluak
landu inddar gustijetaz,
ta itz batez, euren lagijak
eiten yuezan eurak,
antziñeko Lagi-Zarra,
erri-jabetasuna.

Menbetu-guraz ezeben
eurak artu izkilluba;
aberrija aldeztuteko
bakarrik ta sarrittan;
eurentzako aberrija
gauza donia zuan,
eta Jaun-goikua-z urrengo
gustirik mattiena.
Bai-zuazan zoruntsubak
orduban euzkotarrak,
euren Jaun ta Lagi-Zarra-z
azke zuazan-eta.
Orain, ostez... gixaxuok!
ezkozak ordukuak;
galdu yuaguz otturak,

galdu, be, Lagi-Zarra,
ta gure Euzkadi gaxua
yagok il-agиian.

—Attitta: noz galdu doguz
gustijoyek?

—Illoba:

urte batzuk dozakala,
nire ustez luzegijak,
Urrilla-ogei-boskarren
egunan, egun baltza!
atzerrittarrak iñartziz
ken-yeuskuben Lagija,
beñolan gure asabak
odolaz aldeztuba,
guk gure bixitza baño
mattiau yuaguna.

Ordutik ona, illoba,
jopu gozak euzkuak.

Ta gauzaok oldozturik
barre-eingo ete-yuat?
Euzkadi ittun yaguala,
ni, ostez, poz eta alai?
Barre-eingo yuat?

—Attitta:

ez barrerik; malkuak
begijetatik urteten
itxi, bai. Baña esan:
eztira ixango barriro
azkatasun-egunak?
—Bai; gogoz ekiñezkerro.
—Zuk diñozun lez ba-da
ez negarrik: gurendea
ekitten lortzen ba-da
laster-laster, attittaoi,
garalle ixango gara.

EDURRA

Asi da jausten eurrez edurra
euzko-mendijen ganera;
oro zurittu; zidor-bidiak
dagoz gustiz estalduta;
otz gogorrik dau lettu gustija,
dardarka dagoz txorijak;
amaren altzo beruan dago
otza kenduten umia.

Beñolan bere, gure Euzkadi-ra
eurrez edurra jausi zan;
ordutik ona jausi ta jausi
edur-edurrez bete da;
ixoztu dira bere gogua,
bere semiak... gustija;
bere altzuan otza kenduten
umerik eztago, baña.

ARTZAÑAREN EDESTIJA

Artzaña mendi-mendijan,
ardijkak zaindutiaz,
alai eguan errutsu
otso uzu-artian;
edurra mendijan zala,
naiz eguzki berua,
bai neguban, batta udean,
bera zan zoruntsuba.

Ule zuridun artzaña
berarekin bixi-zan,
antziñeko jazokunak
edesten eutsazana.

Zoruntsu zan artzaintxuba,
azke-azke zan-eta;
ezeban beste jaberik
Urtzi baño, ta ardijkak.

* * *

Bein mendijan gixon batek
aurki-eban artzaña,

ta gixon aberatz ari
begikua ixan yakan.

—Nirekin urira juan
gura-dok, artzaintxuba?
Antxe nire jauregijan
oparo bixiko az;
emen lez otz ez goserik
eztok ixango bertan.
Artzaintxubak, zoratuta,
bayetz esan eban, ba,
eta artzain zarra lagatzen
jauregira jatsi zan.

* * *

Gixaxua! Jauregijan
oparo bixi-ixan zan,
baña azkatasun ederra
betiko galdu eban.
Mendijan jaube bakarra
Jauna eban gaxuak,
eta urijan oro ziran
jabe uzubak beretzat.

Eta barriro mendira
bigurtu gura-ixan zan,
baña bere ugazabeak
juten gatazo eutsan.

* * *

Laster artzaintxu zorua
ittun-ittunez il zan;
ta mendijan artzain zarra
erail eban otsuak.

JAYOKUNDIA

BAKALDUNAK

Sorkalderriko ortze garbijan
ixar barrija agiri da;
donoki-deya da berau eta
jarrain biar edonora.

Artu daiguzan aberaskijak,
urre, kedatza ta abaña,
ta jun gadixan ixar-atzetik
gurtzen Jaun-goiko-Semia.

ARTZAÑAK

Jaunaren gotzon donokittarrak
itz-egin dausku goi-gottik
Jaun-goikua-ren Seme bakarra
jayo dala iragarririk;
itxi daiguzan gure ardijak
onena artuten bakarrik,
ta Belen-era eruan daigun
Josu Umiari eskiñik.

HERODES

Bat bez ni baño altsubagua
Juderri oso-osuan;
ni naz emengo Bakalduna ta
gixa-emien jaubia.
Baña Belen-en beste Bakaldun
altsubago jayo ei-da;
erail dagigun azi baño len
ta ni nausija ixango naz.

MIREN NESKUTZA

Ene semetxu matte-mattioi,
Jaun-goikua-ren Semia:
otzez dardaraz ago, gaxuoi,
ta billotsik askatxuban.
Azan ederra, azan kutuna,
ire amaren bijotza!
Gixa-emiak matte-ixateko
ta gaizkatzeko jayua!

AMA KISTARRA

Lo, lo, semetxu matte-mattia,
gaur dok gaurik argijena;
lo, lo, gotzonak inguratuta,
ire amaren altzuan.

Belen-en jayo dok Josu Umia!
Pozak artu yok Iudija.
Belen-go Ume barri ta ona
ixango al-dok laguna!

ABERTZALIA

Pozik gaur dago nire bijotza,
pozik, bai, pozik gogua,
gixa-emien Gaizkale deuna
gaur gaberdijon jayo da.
Aberrijaren gaizkalia be
euzkuak dogu jayua:
Gaizkale deunak gure gaizkale
Iudittarra sortu eban!

PADURA

Euzko-mendijez-ziar izkillu-dei gogorra entzuten da, erkien adarrots ixukorra, bizkattar baretsubak gustiz asaldetan, eta gixon senduak entzuten dabenian bizkor ta sutsu jagi, ta basetxe-attian zutik, etxeko jaunak diño: Zer ete-da?

Alde gustijetatik anotsak erantzuten «Zer da?» baño besterik ezta iñun bez entzuten. Zer da mendi-baria asaldetan dauna? Eta aran-barrenetik elduten da abarrotsa, etsai-gudoztiaren zurrumurru, izkillotsa, gero ta zolijago zabalduten dana.

Atzerrittarrak dira; Luyaondo-z aurrera Bizkai-ra sartu, eta gurasuen etxera elduko dira laster, berau azpiratzen; Ordoño dabe buru gudarozte nabarrak; senduak dirudije, errutsubak, azkarrak, ezeren bilddur-barik aurrerantz-egitten.

Nok Bizkaya-ren kaltez azpiratu-gurarik?
Berau azpiratzeko ezta iñun bez etsairik
Bizkaya-n birkattar bat ixango da-artian!
Aberrija antziñetik ixan da buru-jabe,
arrotzak oña berton iñoz jarri eztabe;
ezta aurrerantz ipinten laketu euzkuak!

Mendi-gallurretatik artzañak ikusitta,
laster mendirik-mendi, artaldiak itxitta,
areyuaren barri zabalduten duaz;
ta mendi goyenetañan erkaldien adarrak
gudara joten dabe, eta uri-mendi-ibarrak
-ziar entzuten dira, bijotzak sutetan.

Erkaldiak ta uritxu bakotxak bere talde
izkilluzten diñardu, aberrijaren alde:
orok batez Bizkaya aldeztuko dabe.
Ezta iñor bere etxian geratuko bilddurrez,
zarrak eta gastiak samurkiro itxi dabez
matte-dabezanak ta gertzen diñardube.

Eta arrotzak Padura-n sartu baño lenago euzkotarrak goyetan gero ta urdurijago euren begira dagoz, gertuta izkillubak; gustittariko dira: lugin-arrantzaliak, su-arrotzak, artzañak; oro abertzaliak ta Bizkaya-ren aldez ilteko gertubak.

Bizkai-ziar aurrera dua arrotz-gudoztia; iñor aurkittu-ezaz errija bezautia, odola ixuri-barik, esten dau erraza; baña Padura ibarran sartutian didarrak entzuten dira, batta euzkotarren adarrak eta guda-santzuak, irrintzi ixukorrak.

Tximista baxen bizkor bizkattarren pillua atzerritarren aurka mendijaz bera dua, azkonak erabillik, sumin ta irrintzika; eta otso-ganera txakur uzubak legez ganera jausten yakez kementsu baña atsegez, ta su-ta-gar ekitten arrotzai jarkika.

Batzuk eta bestiak gixon azkarrak dira;
bildddurra ta ardurea euretzako eztira,
amaika gudakatan sarritan egonak;
batzuk maurotarraren atxin guda ein dabe;
zer dan jopukerija bestetzuk eztazabe;
alik gogorren orok ekingo dabe, ba.

Eurrez-eurrez odola; Iurran autsezko odehyak;
edonundik garraxi, oyu, sorosi-deyak;
kirats iguingarrija zabaldu ta artzen da;
zaurittu dagoz asko, erijotza-begira;
jausten diranen ala, negarra ittoten dira
gudaka diñarduben-garraxi-oyukaz.

Gogor dagi arrotzak naya betetiarren;
gogor, be, bizkattarrak euren sendijkarren.
Nok irabaziko dau gudaka gogorra?
Atzerrittarrak, noski; burdiñezko janzkijak
daukez, ta bizkaiarrak iñundik ezpatiak
ezin sartu etsayai, burdiña dala-ta,

Augattik asten dira samar adorakauten
alegiñak alperrik geyenetan ixaten,
baña laster barriro bizkortuten dira:
euretariko batek soin-erdijan zulua
dakus, ta antxe jo-joten, eratsitta areyua,
sabel-sabelan sartu! deya entzuten da.

Orduban euzkotarrak len baño gogorrago
ekitten dabe; lurra gero eta geyago
gorpu-illotzez beteta, odola eur-eurrez;
menditzarraren ostez euzkija beztuten da;
laster jaritxi biar eyotza ala gurenda;
gudaka diñardube pizti uzu-antzez.

Areyo-buruba il dau Bizkai-emakumiak;
ta ikaraz ixututa areyo-gudoztia
asten da iges-egiten bizkattarren aurrez;
euren jarrai euzkuak etsayak burrustuten
dagije lerrokadak deuseztu ta apurtuten,
areyorik aranan lotzen eztala bez.

Luxondo-ra elduta, bertan gelditzen dira;
izten dautse arrotzai igesten atzerrira,
eta atzera-dagije. Eurena gurenda!
Estegiz Jaun bikaña ta gixon errutsubak
eurrez il dira, baña eurak dira aintzatsubak;
Bizkaya, lenago lez, buru-jabe bai-da.

Euzkotar garalliak guda-zelayan bertan
garaitz-ereserkija gogotsu abesetan,
Jaun Zuria auten dabe Bizkai-ko Buruba.
Antziñetik Bizkaya ixan zan buru-jabe;
arrotzak oña bertan iñoz jarri eztabe:
ezta aurrerantz sartuko etsairik Bizkai-ra!

AURERA!

Zaldija laroinka, basuaz aurrera,
aulkijan etzunda, arnasa-oska,
tximistia legez zidor-bide-ziar,
gaste epebakua aurrera dua.

Bere burubari joranez diñotso:
—Astiz nire ama laztanduko dot?
Il-zorijan dago; arin ezpa-nua
eztot laztanduko illotzik baño.

Arin, nire zaldi, nire zaldi zuri,
nire zaldi bizkor, arin laroinka!
Il-zorijan yagok neu-ama mattia;
osakija yaukat. Arin! Aurrera!

Bat-batez bidian, esker-eskumatik,
mamu gelgarrijak agirtzen dira;
neskatil lirañak, edurrez jantzitta,
gozo-samurkiro diñotsoenak:

—Nor zaldiz, ain arin, basuaz aurrera?
Itxon, gaste zoro, geldi ta, atzera!
Gu gara basoko mattagarri onak
zoruna zuretzat dakartzugunak.

Eregu laztanak zuretzako doguz;
gure mattalia ixango zara.

—Il-zorijan dago neu-ama mattia;
osakija daukot. Arin! Aurrera!

Bat-batez bidian, esker-eskumatik,
mamu gelgarrijak agirtzen dira;
baso-jaunak dira, ulez estalduta;
makilla gogorra dabe eskubetan.

—Nor zaldiz, ain arin, basuaz aurrera?
Itxon, gaste zoro, geldi ta, atzera!
Oyanon gu gara baso-jaun altsubak;
ala dakartzugu; erdu gugana.

Geurekin oyanon jaun ixango zara;
zu baxen altsurik ezta basuan.

—Il-zorijan dago neu-ama mattia;
osakija daukot. Arin! Aurrera!

Bat-batez bidian, esker-eskumatik,
mamu gelgarrijak agirtzen dira;
zorgin itxusijak, itxuski-gañian,
betoker, agin-ez, makurtu, zarrak.

—Nor zaldiz, ain arin, basuaz aurrera?
Itxon, gaste zoro, geldi ta, atzera!
Gu gara zorgiñak; itxusi ixan-arren
asko dagikegu; erdu gugana.

Ludiko gixonik pozena zarake,
gura-dozun aña daukakezu-ta.

—Il-zorijan dago neu-ama mattia;
osakija daukot. Arin! Aurrera!

Arin, nire zaldi, nire zaldi zuri,
nire zaldi bizkor, arin laroinka!
Itz atzipecorroi belarrijak itxi
astiz elduteko ameagana.

Zaldija laroinka, basuaz aurrera,
mamu gelgarrijak atzez itxitta,
gaste epebakua ameaganaño,
bijotza-taupaka, laster eldu zan.

Astiz! Il-zorijan eguan amea;
semiak mattero mosu-ein eutsan,
mosubaz bixitza barriz emon eutsan,
ta bijok betiko zoruntsu dira.

ASTUA

Ortzetik euzki beruak
bidaltzen dauz izpijak;
oskarbi dago; basua
alai ta orlegija;
txorijak txio-txioka,
ta latsak murmurroska,
aberriak ijutika
oyan-zidorrez-ziar;
barazki-lorak berbixi
margotsu ta usaintsubak,
eta urrun mendi-gallurrak
jagitten dira gorantz
ortzian edan-gurarik
euzkijaren argija.

Bedartzez estalduriko
zidor orlegi-ziar,
astotxu baten gañian,
lerden eta liraña,
astuaren albuetañ
barazki-zare bijak,

soloko emoi gozuak
bertan eruazala,
buruban zapi zurija,
ta soñan txal gorrija,
neskatillik lerdenena
alai bakura joyan.

Are, arre! —iñotsean
astuari joranaz,
aspaldittik joyalako
astiro ta narrezka—
Arre, arre, geldi-barik,
gogattuten nok-eta;
ariñago ezpa-ua
belu elduko gozak!
Ostantzian emongoskat
makillada gorrija!
Arre, arre, bigurrori,
arin, arrapaladan!
Bestelako pizti txarra,
asto-edo etxakijat!
Arin, arin, geldi-barik;
aldija aurrera yuak
ta Bilbo-ra eldu biar

zortziretako beintzat.
Adi: arin junezker
Bilbo-ra eldutian
zamuka bigun barrija
antxe erosiko dauskat,
eta galartzu politta
ipinteko buztanan.

Ariñago?... Auxe ondo!
I azan menbeko ona!
Baña, zer gero? Geldittu?
Jaramonik ez ala?
Josu, Miren ta Joseba!
Asto au dan astua!

Onetara neskatilla
astuagaz elezta,
geruau ta asarriago
alperrik iñarduban.
Astua, bai, geruago
ta astiruago joyan,
ta alako baten bigurra
bapaten geldittu zan.
Au ikusirik neskatxa
asi zan makillaka;

baña astua, buru-makur,
apurtxu bez aurrera.
Epebakoz jatsi zan, ba,
ta barriro aztinka,
belarrijak beroturik
buztanetik be teinka,
zematu, jo, didar egin...
gusti-gustija alperra:
nekatu zan eta astua
beti lengo lekuban.
Azkenez ulertu eban
alper-alperra zala
eta beste erabakija
nai-ta-ez artu eban.
Bakura jun biar-eta
oñez ara jungo zan.
Barazki-zariak artu,
itxi bertan astua,
mutillen ardura-pian,
ta asarre aldendu zan.

Orkarte batzuk eginda
entzuten da zarata,
buruba bigurtu, eta,

ori dok ostekua!
Astua, tximista legez,
arin-arinka joyan
ta barriro oratuteko,
neskatxaren nekiak!

AGURRA

Begoña-ko Miren: gixon ittun onen
azkengo agurra samurrez entzun;
euzkotar gaxua nerau dozu, Ama,
aberrija izten dot juteko urrun.

Emazte ta seme-alabak oraingo
ixontzian dagoz; itxaso-ziar
zorun-billa guaz, egundo orain-arte
gozartu eztogun zorijon-billa.

Agur, Miren deunoi: gugaz errukittu;
ez-itxi semiok itxasuan itto;
gure Zaindarija ixan zakigu.

Agur, Neskutz onoi, Donokiko Ixarra:
arinddu len-bai-len gure zoritxarra,
gure lemazaña ixan zadi zu!

AURREZ-AURRE

Eguzki dis-ditsuba
sorkaldetik ortzez-ziarka dua,
aurpegi argitsuba
erakusten arrua,
eta lurra ureztetan.
Aurrerago danian,
itxasuen gañian,
ta sarkalderáño eltzen danetan,
aurrez agertuten az,
ta bera, azan ederraz
itxututa, mattia,
jausten don uñetan lotsaz betia.

BASATXONUA

Arkaitz jagi-gane, mendiko tontorran,
odeyen artian, berago laňua,
urrundik paguso zurijaren antzez
da basatxonua.

Gabez illazkijak ta ixarrak burestun
ederra dautsoe; argiz arranuak;
gautegun goi-goyan, ortzian egazka
da basatxonua.

Bertotik Jauna-ri otoya igoten da,
berton gurtzen dabe jauna gixoztiak,
berton obendijen bijotz ustelkorrak
garbai-damu dira.

berton jazo dira alatz andijenak
bertontxe dongiak eurrez ondu dira,
bertotik goraño gotzonak daruez
bijotz onetsijk.

SUKALDIAN

Eskaratz zabalan sendija batuta
sukaldian dago; atan edurra,
txingorra ta otza; barruban berua;
gastañak erretan danboliñetan.

Txipli-txapla-pun,
gau txarra pozarren
igaro daigun.

Neskatil ederrak iruten diñardu;
etxeko anderak maya gertauten;
erretan attea; umiak ixillik,
attonaren ipuin zarrak entzuten.

Txipli-txapla-pun,
gau txarra pozarren
igaro daigun.

—Bein, antzin-antziñan, akelarre baten
zorgin itxusijak batzaldu ziran;
umetxu politta zorgiñen artian
kikilddu, bilddurrez, dardar eguan.

Txipli-txapla-pun,
gau txarra pozarren
igaro daigun.

Umiak adurraz espanetan dagoz
attonaren ipuin zarra dala-ta;
attea irribarrez; samurkiro ama;
alaba politta oldoztun-samar.

Txipli-txapla-pun,
gau txarra pozarren
igaro daigun.

Umiak dakuse kebidiaz bera
zorgin itxusijak itxuski-gañan;
alaba samurrak sutzarra-barruban
mutil mattiaren itxura apaña.

Txipli-txapla-pun,
gau txarra pozarren
igaro daigun.

Txadonan zortzirak jo dauz jualiak;
agureak diño: gaurko naikua;
ameak: bai-dago aparija gertu;
ta bai-duaz alai gustijak maira.

Txipli-txapla-pun,
gau txarra pozarren
igaro daigun.

Lusagarra ugari; gura-aña txarriki,
ura baxen eurrez be sagardaua;
umiak jangarraz, jangarraz nausijak;
aginkada onak, zurrut obiak.

Txipli-txapla-pun,
gau txarra pozarren
igaro daigun.

Mai luze-inguruban sendija batuta
apaltzen diñardu; atan edurra,
txingorra ta otza; barruban berua,
bai eskaratz bertan, bai urdalletan.

Txipli-txapla-pun,
gau txarra pozarren
igaro daigun!

ARATOSTE!

Txaide-zeyak-ziar ijuti-didarka,
mozorro zoruak ikusten dira;
batetik bestera, goteungiak legez,
gustijai zirika, zarata andijaz.

Eztira bardiňak mozorro gustijak;
gustittaiko dira, txiro ta aberatz;
batzuk giron zinddo-itxuraz jantzitta,
bestetzuk dongien janzki ixukorraz.

—Ezetz ni ezautu! Gixon ala eme?
Etsai ala aizkide? Mutil ala zar?
Eukin ibilteko mozorro au itxi;
nik matte-audana eztakik-ala?

—Ken, ken, mamu ori, ut emendik urrun!
mozorroz ta gusti ezautzen aut, ba;
gogo zindduaren areyo zittala;
mozorrua-barik, bardin gustijak.

A, geu-aberrijon aratoste-egunak
iñun ez lakuak, aspaldi dira!
Batetik bestera mozorro zoruak
iñarduten dabe, oroi zirika.

Eztira bardiñak mozorro gustijak;
gustittaiko dira, txiro ta aberatz,
batzuk abertzale-janzkijaz jantzitta,
bestetzuk etsayen janzki ixukorraz.

—Ezetz ni ezautu! Zittal ala zintzo?
Etsai ala aizkide? Abertzalia?
Eukin ibilteko uste orreik itxi;
ik baxen mattia yuat errija.

—Ken, ken, mamu orrek, ut emendik urrun!
Mozorruak-arren ezautzen zaudaz:
erri gaxuaren areyo zittalak;
mozorrua-barik, bardin gustijak.

NEGAR-NEGARREZ DAGO

Negar-negarrez dago
Amatxu gaxua;
negar-negarrez dago
Semia il yako-ta.

Bere bekoki leuna
ixerdiz bustitta,
bere begi bigunak
malkoz lañotuta.

Espan samur-samurrak
miñez tximurtuta,
eta aurpegi zurbillak
edurra lakua.

Gotillun, adikatu,
bijotz-ikareaz...
Bera baxen ittuna
iñor ez ludijan!

Zer-ete-daukon, Ama?
zegattik negarra?
il yan ire Semia!
il don Ezilgorra!

Bakar-bakarrik ago,
bijotza-lertuta.
Gixonen Gaizkalia
gixonak erailda!

Negar, negar, Amatxu,
amarik mattena!
Negar, bai, negar-egin
gogoz ta bijotzazl

Baña begi samurroik
zuzendu gugana;
geu, be, gonaz, Amatxu,
ire semetxubak!

ARRANUA

Arranuak gorantz dagi
odei baltzen artetik;
euzkirantz egazka dua
bertan edan gurarik.

Arranua nausikiro,
ixarretaz ziarka,
egarzti gustijen buru
axian da zibuka.

Arranua lurrasotik
urrun-urrun egazten,
azke da, goi-gottik bia
ezetsaz begiratzen.

Ixakijen loikerijak
berarentzat eztira;
bian dagoz lokarrijak;
azke bera goi-goyan.

Lurra da narrazkijentzat,
itxasua arrañentzat,
egaztijentzat axia,
arranuentzat goya.

Eguzkijaren izpijaz
berotuten da berau;
bere abija ixarretan
oldarrez ipinten dau.

* * *

Arranua baldin ba-nintz
goi-gorantz egitteko,
eguzkijaren izpija
ortzian edateko!

Arranua baldin ba-nintz
ludittik urrunera
egazteko, loikerijak
emen bian lagata!

Arranua baldin ba-nintz
gixemiai igeska
goi-goyan azke-ixateko,
an, gotzonen artian!

Liorra narrazkijentzat,
itxasua arraňentzat,
egaztijentzat axia,
guretzat donokija.

Jaungua-ren eguzkijan
edan gura neuke nik;
nire abi betikorra
donokijan ipiñi.

* * *

Arranua, arranuai,
i azan zoruntsuba,
ludi zittal au lagata,
azke goyan egazka!

LARATXORIJA

Donostia'r Joseba Andoni abeari.

Ortzargija dagir; lurraso-gañian,
illunaz ostian,
euzkijaren izpi bigunak datoz;
aran-mendi-ibayak, loratxu politta,
lozorrua itxitta,
berbixi ta ludi osua da poz.

Oyanan piztijak itxartuten dira;
eguzki-begira,
asten dira beka, urruka, zaunka;
basuan txorijak txiruli-txioka,
ijutika, urruka,
ospatuten dabe euzkijan aintza.

Oyan-oyanian, zugatz tantai baten,
samur abesaten,
txiru-liru dago larratxorija,
poz-pozez beterik, agirtzen dalako
jauna-k emondako
ixadi-bixitza dan ortzargija.

Aberrijan be bai-da larratxorija,
beren otzargija,
alik ederrena, ikusten dauna;
eta bere poza ezittu-eziñik
beren estarrikit
abesti samurrak urteten dira.

Geu-aberrijaren abeslarijori,
euzko-larratxori:
gure egun-sentija abestu bizkor;
euzkua iratzartu eure abestijaz;
eguzki barrijaz
Euzkadi-n gurenda nausija yatork.

SUTZARRA

Deun Jon! Mendirik-mendi, ixar igazkor-antzez,
su-min distiratsuba ijutika dua;
mendi-gallur-tontorrak ixijotuten dira;
garrak dar-dar-dagije, ortzerantz egazka.

Deun Jon! Gar andi batez argittu da illundija;
beriala beste bat urrun agirtzen da,
urrunago beste bat, ta beste bat urrengo...
Laster mendi gustijkak bai-dagoz sutetan.

Deun Jon! Basetxe zuri zarreko enparantzan
neska-mutillak dagoz sutzarrai biraka,
ta eskutik elduta, alai eta pozarren,
oinketan diñardube, santzo ta ijutika.

Deun Jon! Deun Jon! Egunik alayena guretzat,
gogo-gaste ta bijotz-sutsu garanontzat;
ortzian iñoz baño argijago euzkija;
sutzarrak dirala-ta ga
ba ezta illuna.

Ta sutzarrai biraka orok abes-dagije:
«Deun-Jon-an zorgin, eltxo ta zorri gustijak
erretan dira, baster osuak garbitturik.
Aupa, bizkor gustijak, subari biraka!»

* * *

Argi-egik, sutzarroi! Izpi-egik betiko,
asabaen basetxe zar-zarra argijetan!
Euzko-basetxietan itxungitten ez itxi
antziñeko ixakera, mattasun-berua.

Mendijez-ostez iri begira yagozakan
atzerritar goseti ta areyo malmutzak
ezagije iñoz-iñoz itxungitten ikusi,
eugaz ilgo dalako euzko-basetxia.

Argi-egik, sutzarroi! Izpi-egik betiko!
I az gu-aberrija jabon yuan suba;
emen dozak ondiño zorgin, eltxo ta zorri
itxelak, aberrija zikintzen yuenak.

Eurak sakaildurarte, argi-egik, sutzarroi,
argi-egik, batez-be, Deun-Jon-gau onetan.
Aberriko basterrak garbi geraturarte,
aupa, bizkor gustijok, subari biraka!

EUNLIA

Jauregi zarreko torretzar-barruban,
odeyen artian, mendi-gallurran,
urrezko arijaz oyaltzen diñardu,
atsedendu-barik, eunlari zarrak.

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Jauregi zarreko torretzar-barruban,
gixadittik urrun, ixar-artian,
abestuten dago joranez eunlia,
urrezko arijaz lan-etten daula.

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Belaen karrankak jauregi-barruban
asaldetan dabe bertako ixilla;
eunle zarrak, baña, jaramonik bage,
gogoz jardunari ekitten dautsa.

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Bela gosetijak gogor diñardube
leyarretan joka, an sartu-gurez;
jauregi-leyarrak gogorrak bai-dira
eta ezin sartu barrura belak.

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Azkenez, asarrez, atsuak diñotse,
bere lan ederra lagatu-baga:
«Zeren billa zatoz, bela zittal oyek?
Zer gura-dozube, ainbeste kuaz?

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Ona sartu-ete? Baña zetarako?
Zer dagikezube jauregi zarran?
Gose ba-zarie alboko basterrak
ustaz eta gariz betiak dira.

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Baña nik bai-dakit zer gura-dozuben:
gura-ta-ez sartu torre-barrura,
oyal eder auxe mokoka urratzeko,
ta buru-ixateko jauregi zarran!

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Ken, ken, bela oyek, ut, emendik alde!
Ona etzarie sartuko iñoz, ba.
Aberri-oyala eunduten diñardut,
abenda zarraren oyal ederra.

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Antziñan asitta, gixaldijak-arren,
eztot bera amattu, ta luzaruan
nik ekingo dautsat, oyal aldintsubau
ororen gelgarri ixango dala.

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Ut, ut, bela oyek; gose ba-zarie
beste garatera jo edo-biar;
nik urezko oyalau dagidanartian
etzare sartuko jauregi zarran».

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

Jauregi zarreko torretzar-barruban,
leyuak itxitta, beleai gorra,
urrezko arijaz eunduten diñardu
abenda-oyala eunle zar-zarrak.

Bela baltzak
kua, kua, kua, kua
leyuetan.

ORTZARGIJA

*(Victor Hugoak idatzi eban
olerkija euzkeralduta.)*

Ortzargija dagir, oskorriz jantzitta,
ametsezko eunaz eskutau-samar.
Zegattik, neskatal, eu-atia itxitta?
Loratxu polittak iñontzaz bustitta;
 lo-dagin-ala?

Ni non ittunaren itxaro bixija
eu-atian deika egunak yiñon.
Egaztijak yiñon: ni non eresija.
Ta nik, intzirika, diñosnat: mattia,
 mattasuna non.

ILLOBEA

Illoba kutunarekin
bixi-zan agurea,
ta bera baxen ederrik
ezeguan ludijan.
Agura kutunarekin
bixi-zan illobea,
ta bera baxen samurrik
ezeguan ludijan.
Attittea ta illobea
alkarrez bixi-ziran
ta bata bestia-barik
ezin bixi ludijan.

Sarritan esaten eutsan
illobari atonak:
«Iñoz ilgo nokanian
yaukuadan gustija,
nire jarauntsi osua,
ixango dok iretzat;
i az nire ondorengo
bakarra, ta au dala-ta

neu ildda gero, ludian
oparo bixiko az».

Illobreak erantzuten
eutsean: Attittea:
eta zu baño lenago
ilgo ba-naz? —Attonak
ezeban attuten gura
illobreak esana,
eta berari begira
gautegun egoten zan.

Ta bein... illoba gaxua!
donokittik jatsi zan
gotzon bat eta mattero
erun eban egazka.
Lotu zan bakar-bakarrik
agura gixaxua,
lotu zan illoba-barik,
bera be il-aginian,
bere jarauntsi jorija
nok oñordetu-baga.
Bere illobatxubaz ostez
egaz-ein gura-eban;
Ezin; Iurrari lotuta

egozan bere eguak.
Or dutik, zoratuta ija,
batetik bestetara,
agura gaxua dabil,
urtiak makurtuta.

Ta bidian umeren bat
iñoz aurkitzen ba-dau,
geldi, ta aurpegiz-aurpegi,
umiari begizka
begi samur-ittunetaz
luzaro egoten da.
Ta bere ogasunaren
zatiren bat damotsa
esaten: Eutsi, mattioi,
au nire jarauntsija;
artu ta eruan laster
illobatxubagana;
donokijan i-begira
gotzonakin yagok-ta,
umiak eztozalako
Iudijon bixi biar.

IXIL...!

Ixil, ixil, anai orrek!
Zaratarik ez emen!
Sabin, geuria, lo dago...
Ez-iratzartu, arren!

Pozik atsedeten dago.
Bai-dago nekatuta!
Lotu-barik, ama-billa
arantz-ziar juan da.

Amatxuba ildden eguna
ta berak gaizkatu dau;
orain umezurtz ezkara;
baña bera da nekau.

Ixil, ixil, anai orrek!
Zaratarik ez emen!
Sabin, geuria, lo dago...
Ez-iratzartu, arren!

SEYASKA-ABESTIJA

(Gabonetan)

Din, dan, seyaskan
lo dago Josu Umia;
din, dan, altuan
dauko Ama samurrik.

Dingi-lin, danga-lan,
dingi-lin, dan.

Ori seyaska ona
Jaungo-Semia-rentzat!

Din, dan, artzañak
gurtzen etorri dira;
din, dan, aurrian
sorkalde-Bakaldunak.

Dingi-lin, danga-lan,
dingi-lin, dan.

Erdu, erdu gustijak!
Josu Umia itxartu da!

Din, dan, Ameak
mosuka dau Semia;
din, dan, Semiak
zabaltzen dauz espanak.

Dingi-lin, danga-lan,
dingi-lin, dan.

Bere espan gorritxubak
diran bigun samurrak!

Din, dan, kutuna:
eistak, arren, mosuba;
din, dan, gogua
argittu ire mosubaz.

Dingi-lin, danga-lan,
dingi-lin, dan.

Ni nazan zoruntsuba!
Mun-egin daust Umiak!

UGARTIA

Itxaso zabalaren erdijan, ugartia
bakar-bakarrik dago, arraintzarraren antzez.
Antzin-antziñetatik leku berberan datza
ekatxak, itxasua ta gixaldijak-arren.
Atxez egiñak dira beren errai gogorrak
ta bunbadeak-arren iraunkor deusezkatzak.
Noz, itxaso-erdijan, bera-altzotik jagitta,
agiri zan bertantxe ugarte zurgarrija?
Noz, itxas-egaztijak lengoz bere ganera
jatsi ziran ortzetik, abijak egitteko?
Noz, ez-ezagun-billa jun ziran itxastijak
bertaraño lenengoz legorreratu ziran?
Iñor-ez-iñok daki. Antziñetik bertantxe
ugartegija dago. Gixonaren begijak
eztau sortzen ikusi, ezta iltzen ikusiko,
aldija bera baxen iraunkorra dalako.
Bere inguruka dagon itxaso neurbagiak
bein baño sarrijago beren uintzar gorijak
ugarte-itxasertz-atxin jaurtitten dauz asarrez
eragozki gaitz-gatxa sakabanau gurarik,
baña itxasertzan jota, deuseztu ta urratuta,

ezer jaritxi-barik, atzeraka dagije.
Batzutan bits gorijak ondartzaz leunaz-ziar
aurrera-dagi, baña ondarrak iruntsitta
galduten da, sazkara itxasertzan itxirik.
Guzurrezko mosubaz ekin ta ekittiaz
itxaso bigurrijak ugartiaren bia
asi da, bigun-bigun, malmutz, zulapetuten.
Baña beren errayak burdiña baxen gogor
eta senduak dira, ta itxaso-bunbadeak
eta uintzar gorijen mosu gaizkiñak-arren
ezta iñoz ugartia uretan ondatuko.
Bakar, jagi ta sendo, itxasuen erdijan,
bertan beti dagoke, itxasargija legez!

* * *

Lurraso zabalaren erdijan, abendea
bakar-bakarrik dago, ugartiaren antzez.
Antzin-antziñetatik leku berberan datza
gudeak, areyuak ta gixaldijak-arren.
Burdiñezkuak dira beren errai gogorrak
ta bunbadeak-arren iraunkor deusezkatzak.
Noz, errijen artian, iñundik etorrita,
agiri zan ementxe abenda zurgarrija?

Noz, euzkotar senduak lenengoz bere lurran
oñak jarri ebezan zaindokija ixateko?

Noz ludijaz-ziarka ebiltzan euzkotarrak
bertaraño lenengoz erdu ziran betiko?
Iñor-ez-iñok daki. Antziñetik bertantxe
euzko-endea dago. Gixonaren begijak
eztau sortzen ikusi, ezta iltzen ikusiko,
aldija bera baxen iraunkorra dalako.

Bere inguru dagozan erri andi-inddartsubak
bein baño sarrijago gudarozte nabarrak
bere mugaen atxin sumin jaurtitten dabez
eragozki ezkatxa sakabanau gurarik,
baña mugetan jota, deuseztu ta urratuta,
ezer jaritxi-barik, atzeraka dagije.

Batzutan areyuak luralde leunaz-ziar
aurrera-dagi, baña endeak iruntsitta
galduten da, sazkara azalian itxirik.

Guzurrezko mosubaz ekin ta ekittiaz
arrotzalekerijak abendearen guna
asi da, bigun-bigun, atzipez, gaiztotuten.

Baña beren errayak burdiña baxen gogor
eta senduak dira, ta areyo-bunbadeak
eta arrozkerijaren mosu gaizkiñak-arren
ezta iñoz abendea, ludijan ondatuko.

Bakar, jagi ta sendo, erri zital-artian
bertan beti dagoke, ugarte gogor-antzez!

ALTZUAN

Amaren altzo
beruan dago
Josu Umetxuba
zabuka;
bero-berua,
irri-barreka
Miren Amaren
altzuan.

Euren oñetan,
otzan-otzana,
ardija dago
bebeka;
bebeka dago
euren oñetan,
otzez dardaraz,
ardija.

—Ama, amatxuboi
—diño Semiak—
nor yagon bian
alaka?

—Ardi politta
dok, kutuntxuboi,
otz eta ittunez
dardarka.

—Ardi gaxuoi!
Ekarri, Ama,
ekarri nire
ondora;
bijok batuta
ire altzuan
ixango yonau
berua.

URRETXINDDORRA

Gaba dalarik, urretxindorra
zugatzan dago txioka;
beste txorijak lozorro dagoz;
bera bakarrik ernai da.

Illun-artian urretxindorrak
abesten dau mattasuna;
osertzan dakus egun-nabarra
ta pozik dago txorija.

Gaba dalarik, olerkarija
Euzkadi-n dago abeska;
beren anayak lozorro dagoz;
bera bakarrik ernai da.

Illun-artian olerkarijak
abesten dau aberrija;
osertzan dakus egun-nabarra.
ta bai-dau pozik bijotza!